

Kortxoenea beste behin herri dinamika autogestionatuak erasotuak. Kultura sorleku itzela, auzo harreman bikaina eta ezagutza kolektiboaren gunea. Hiru dimentsio eta bakoitzak ikusten dizkionak bizi dira Kortxoenean; aniztasunasunaren federazioa, hobe esanda konfederazioa baita hau.

Erasoaren ostean, erresistentziara pasa behar izan duen gunea, sostengu gero eta handiagoa lortzen ari da. Udalak, jada egin duenagatik kezkatu beharko luke, dinamika sortzaile izugarria zuen gunea erresistentzia klabeetara igarotzera behartu du eta horrek [Kulturaren hiriburuan](#) barkaezina behar luke izan.

Gutxi iraungo du horrek Kortxoenean, aspaldi ikasi zuten bizitzea, sortzea dela. Berriro itzuliko dira kolore biziak, manifestazio eta kontzentrazioetan erresistentzian, bai baina hortxe zeuden, [ez dira inoiz joan](#).

“Kultura sortzailea, herrigintza parte hartzailea eta ezagutza kolektiborako faktoria”, horixe da gune hau. Batzuek ulertzeko, hitz politekin, honela ere adieraz zitekeen: “Kultura berrikuntza, berrikuntza soziala, ezagutzaren gizarterako dispositiboa”.

Hori bai, alternatibarik balego, Kortxoenearen izaera guztia, dituen hanka guztiekin eta berriak autonomian eraikitzeko aukera ematen duen bat izan beharko luke. Gertatutako [happening](#) bat bezala ulertu beraz eta urek beren bidea har dezatela berriro.

Irudia: Lander Arbelaitz <https://twitter.com/larbelaitz/status/641715114819866624>

Zabaldu:



- [Click to share on Twitter \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Facebook \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Telegram \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Pocket \(Opens in new window\)](#)